



Goiburu aldean ibili ziren axerriak, inauterien atariko iragarritz

2016ko urtarrilaren 29a, 468 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

PUSKA BILTZEA ANDOAINEN

## Lesbosen errefuxiatuei laguntza ematen aritu da Joseba Maiza

Andoaingo medikua abenduan Greziako uhartera abiatu zen, errefuxiatuei laguntza ematera.

Handik itzuli eta hilabetera, Aiurri astekariak eskatuta, hango esperientziaren berri eman du. Sekula ahaztuko ez duen esperientzia izan da, eta oso kritiko agertuko da Europar Batasunaren goi mailako politikarekin: "Ez dago eskubiderik pertsona horiek errefuxiatu baten bizitza eramatera kondentatzeko".

### Zer dela eta abiatu zinen Greziaruntz?

**Joseba Maiza:** Turkiako hondartza batean hilik topatu zu-



Joseba Maiza, argazkiaren erdialdean, itsasotik zorabiatuta iritsi zen errefuxiatu bati laguntza eskaintzen.

ten Aylan Kurdi hiru urteko haurraren irudiak barruak mugitu zizkidan.

Izatez ipurterre samarra naiz, eta beti pentsatu izan dut ahal dugunean, pertsonak, hurkoari laguntza helburu duten abenturatan inplikatu beharra daukagula. Zarauzko lau sorosle hara zihoazela jakin nuen une berean sartu zitzaidan ideia buruan. Gehiegi pentsatu gabe erabaki nuen haiekin bat egitea. Emaztearekin hitz egin, lan ordutegiak lankideekin konpondu eta hara eramateko bi maleta prestatu nituen: Andoaingo farmazietan eta Zumarragako ospitalean eman zizkidaten botikekin bete nituen biak. Horrez gain, desfibriladore bat erosi nuen, han beharko nuela pentsatuta.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



## Inauterietan Idiazabal kalea itxiko dute

Datorren otsailaren 6an, Urnietan mozorro desfilea ospatzen den egunean Idiazabal kalea trafikoa itxiko dute arratsaldeko 17:00etatik gauerdira arte.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



## Kaldereroen etorrera Andoainera

Ostiral arratsaldean Ondarreta ikastetxearen eskutik eta larunbatean Ontza elkar-tearen eskutik.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

## Legegintzaldi planaren aurkezpena

Aurreko ostegunean agintean dagoen EAJ-PNV alderdiak Udalaren antolaketa eta egitura nola osatuta dagoen azaldu ziren herritarrei. Esaldi bakarrean laburbildu zuen alkateak

agintaldi honetarako duten erronka nagusia: "Ondorengo nahi dugu: Urnieta euskaldun bat; parte hartzea eta ekintzaitasuna sustatzen dituen herria izatea; bakearen, bizikide-

tzaren eta adiskidetzaren kultura sustatzen duen herria izatea; ingurumena zaintzen dituen herria izatea; eta herri irisgarriago, erosoago, jasangarriago eta atsegina izatea".



**EGAPE IKASTOLA**  
BIZITZARAKO HEZKUNTZA

**MATRIKULA ZABALIK!**

URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 5era

**BILERAK 2 URTEkoentzat:** urtarrilak 26, Etxeberri Plaza, 17:00 h.

**BILERAK DBHkoentzat:** urtarrilak 25, Azkorte, 17:00 h.

WWW.EGAPE.ORG

50 EGAPE IKASTOLA 50 urte bidean

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ANUNTIA HEZKUNTZA

BAKARA



## Gogorra, baina lagungarria



Ikus-entzunezkoa eta gero bertaratu zirenen artean solasaldia egin zuten.

**Bakea eta Bizikidetz**a jardunaldien baitan, "Glencree, elkarrekin egindako bidea" dokumentala proiektatu zuten larunbat goizean Saroben. Bertan izan zirenei "gogorra, hunkigarria eta baliagarria" iruditu zitzaizkien Glencree esperientzia urnietarrei.

Alde ezberdinetako biktimak elkartu eta bakoitzaren sufrimendua eta mina elkarbanatzea da egitasmoaren helburua. Dokumentalak erakusten du ETaren biktimak, GALen biktimak, bahiketen biktimak, estortsioen biktimak eta abar elkartu, eta nola elkar ulertzen saiatu ziren. Biktima guztien arteko sintonia, armonia eta empatia isladatzen du ikus-entzunezkoak.

Hamabost lagun inguru bildu ziren Saroben, eta ikus-entzunezkoa txaloka amaitu ostean, bi taldetan banatu ziren ikusitakoaren inguruko solasaldia egiteko. Bertaratu zirenentzat oso dokumental

*"Ikus-entzunezkoa txaloka amaitu ostean, bi taldetan banatu ziren ikusitakoaren inguruko solasaldia egiteko"*

"gogorra eta hunkigarria" izan zen, biktimen sufrimenduekin enpatizatze "baliagarria". Jende ezezagunarekin lortutako hartu-emanak eta, tentsioa alde batera utzita, parte hartzaileek jasotako ikasgaiak harritu zituen. Taldetan jarrita, adierazi zuten "egia gordina" erakusten dela ikus-entzunezkoak: "Besteen bizipenekin enpatizatze balio du. Ez dugu ondokoa entzuten, eta besteengandik asko ikasi dezakegu". Gainera, oso talde ausarta iruditu zitzaizkien, beraien bizipenak kontatzeko pausua emateagatik. Ikusitakoarekin hunkituta, "guztiz positiboa eta lagungarria" zela nabarmendu zuten.

## Gogora erakundea eta Errenteriako esperientzia

Bake eta jardunaldien baitan, bigarren hitzordua ostegun honetan bertan izango da. Euskal Herriko bi esperientzien berri emango dute. Lehenengoa, "Memoria landu: zergatik eta zertarako" izenburukoa Eusko Jaurlaritzak zabaldu berri duen Gogora institutuko zuzendari

**Aintzane Ezenarro**k eskainiko du. Jarraian, **Sabino Ormazabal** Argituz ekimeneko kideak "Memoria partekatu bateruntz" hitzaldia eskainiko du, Errenteriako esperientzia ardatz nagusitzat harturik.

Urtarrilak 28, osteguna.  
19:00-20:30. Sarobe.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Planak biltzen dituen arloak eta helburuak azaldu zituzten

# Legegintzaldi planaren aurkezpen ekitaldia



Argazkian Vaquero, Goikoetxea, Sarasola, Pagola eta Martiarena alderdi jeltzaleko zinegotziak Lekaioako agerraldian.

Udalak pasa den ostegunean Lekaion egindako aurkezpenean, bigarren Legegintzaldi planaz hitz egin zuten; aurrera begirako misioak eta balioak adierazteaz gain, Udalaren antolaketa eta egitura nola osatuta dagoen herritarrei azaltzeko. Aurkezpenean izan ziren Mikel Pagola, Maribel Vaquero, Miren Martiarena, Jorge Segurado, Juan Luis Goikoetxea eta Maripi Sarasola Udal ordezkariak.

Lehenik, Udalak dituen misioak, bisioak eta balioak azaldu zituen Mikel Pagola alkateak. Hala, argi azpimarratu zuen urnietarren bizi-kalitatea hobetzen jarraitzea dela gobernu taldearen erronka nagusia: "Ondorengoa nahi dugu: Urnieta euskaldun bat; parte hartzea eta ekintzailatasuna sustatzen dituen herria izatea; bakearen, bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura sustatzen duen herria izatea; ingurumena zaintzen dituen herria izatea; eta herri irisgarriago, erosoago, jasangarriago eta atseginarago izatea". Horretarako, Udalak zenbait balio beregain hartuko dituela hitz eman zuen; gertutasuna, zintotasuna, gardentasuna, eta elkartasuna, besteak beste.

Ondoren, Legegintzaldi planak biltzen dituen arloak eta helburuak azaldu zituzten, Udalaren antolaketa herritarrek ezagutu zezaten. Gaur egun, Udala hiru arlo nagusitan banatuta dago: Antolakuntza, Herritargoa eta Lurralde. Honenbestez, zinegotziek banan-banan, bakoitzak beteko

*"Komunikazioa bi norabideetan indartu nahi dugu, herritarrei parte hartzeko aukera emanez"*  
Maribel Vaquero

*Udalak zenbait balio beregain hartuko dituela hitz eman zuen alkateak: gertutasuna, zintotasuna, gardentasuna eta elkartasuna*

dituen arduren xehetasunak eta helburu estrategikoak azaldu zituzten.

### ANTOLAKUNTZA SAILA

Idazkaritza eta Kontu-Hartzailetza sailek osatzen dute arlo hau. Legitimizazio honetarako dituen helburuen artean, gardentasunari garrantzia emanez, parte-hartzea indartzea eta herritarrekin komunikazio aktiborako eredu berria ezartzea daude. "Komunikazioa indartzea da gure asmoa, baina ez zentzu bakarrekoa soilik. Komunikazioa bi norabideetan indartu nahi dugu, herritarrei parte hartzeko aukera emanez", azaldu zuen Maribel Vaquerok. Horrez gain, prebentzioan, formakuntzan, informatika arloan eta eskualde mailako agentzian lanean ari direla iragarri zuen Juan Luis Goikoetxeak.

### HERRITARGOA SAILA

Arlo honek Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena eta Garpunen Pertsonala, eta Udaltzaingoa biltzen ditu. Miren Martiarenak adierazi zuenez, herritarrei lotutako gaiak lantzen dituzte: justizia eta berdintasuna, adineko pertsonen eta ezintasunen bat dutenen bizi kalitatea, adingabekoen babesa, transporte zerbitzua, prebentzioa arlo pertsonalean...

Baita bizikidetz, kiroleko eta euskarari lotutako gaiak ere. Sail honetan, beraz, gai horien guztien normalizazioan lan egingo dute David Rosco, Miren Martiarena eta Maribel Vaquero zinegotziak.

### LURRALDE SAILA

Arlo hau Hirigintza sailari dagokio eta honako helburuak ditu etorkizunera begira: Udal azpiegituren hobekuntza bultzatzea, irisgarritasuna indartzea, Udal ondareari indarra ematea, hondakinen gaikako bilketa indartzea eta Urnieta lurralde atsegina eta iraukorra izan dadin pausua ematea.

## INBERTSIOAK

Udalak hilabete honetan inbertsioetarako proposamenak aurkeztu eta gero, herritarrek ere inbertsio estrategikoei buruzko proposamenak egiteko aukera izango dute urtarrilaren 31ra bitartean. Egun horretatik aurrera, amaitutzat emango dute atal honi dagokion parte-hartze prozesuaren lehen fasea. Ondoren, otsailean zehar, udal teknikariek proposamen guztiak jaso eta gero, azterketa lanari ekingo diote. Lan hori eginda, behin betiko zerrenda osatuko dute.



## PAGUA (PAGOAGA) BESERRIKO PILAR URREAGA

# Bizitza osoa Donostiako San Martin plazan

Oztaran auzoko Aritzalde baserrian jaio zen Pili Urreaga Izagirre 1940ko martxoaren bostean. Gaztetxo zelarik hasi zen amari lagunduz, Donostiako San Martin merkatua, etxeko barazkiak saltzera

joaten. Behin Pagua baserrira ezkondu, urte batzuetan Hernanin esnea etxez-etxe saltzez ibili ondoren, San Martinera bueltatu zen. Bertan dirau oraindik orain.

## Nola gogoratzen duzu umetako bizitza Aritzalden?

**P.U.:** Gure aita nik hiru urte nintuela hil zen, eta bi morroi bizi ziren etxean baserriko lanak egiteko, ama berriz, etxeko esne eta barazkiekin Donostiara joaten zen, aurrez gure amona joan zen modu berean.

## Zer oroitzapen duzu eskola garaiaz?

**Pili Urreaga:** Urnietako monjetan hasi nintzen sei urterekin, eta bertan ibili nintzen hamalau urte bete nituen arte. Hogeiren bat ume ginen gelan, gehienak kale-tarrak. Garai hartako eskolan izaten zen moduan, erdaraz izaten ziren klaseak, eta nik ere hantxe ikasi nuen erdara. "Cara al sol" abestazten ziguten, eta erligioa oso presente zegoen kurtso osoan: Kredoa, sermoia, aingerutza, maiatzean amabirjinaren hilabetea...

## Moja izateko tentaziorik ez al zenuen izan?

**P.U.:** Bazen moja bat horretan saiatu zena. Hark gure amari esaten zion "la madre ya tiene otra hija para ella, y tú para nosotras". Baina, nik ez nuen nahi.

## Urte haietan ondoan zenuten Zibulio sagardotegia...

**P.U.:** Domingo Urreaga gure osaba oso sagardozalea zen eta Zibulioenera ezkondu zenean, bertan sagardotegia ireki zuen. Ez zuten seme-alabarik izan eta haien zati bat alaba bezala nintzen. Han aritzen nintzen entsaladak prestatzen eta abar, baita jolasten ere, baina ez Zibulioenera bakarrik, inguruko Mandazubi eta Eguzkitza baserrietakoekin ere ahaideak ginen eta denetan ibiltzen ginen. Etxean bezala.

## Noiz hasi zinen etxeko barazkiekin San Martin plazara joaten?

**P.U.:** Umetan tarteka joaten nintzen amarekin eta izebarekin, baina batez ere zaharrago den ahizpa joaten zen. Bera haurdun geratu zenean, 18 urte nituen, eta orduan hasi nintzen egunero joaten.



Pili Urreaga Donostiako San Martin merkatuan.

## Eta Pagua baserrira ezkonduakoa jarraitu zenuen...

**P.U.:** 24 urte nintuela ezkondu ginen. Orduan hemen ez zuten baratzerako joerarik, hemen ganadua zuten eta esnea saltzen zuten Donostiara, baina Gurelesa martxan jarritakoan, baserri-rrei Donostian esnea etxez-etxe saltzea debekatu zigutenez, Hernanin hasi ginen saltzen. Asko aldatu zen egoera, Donostiako bezeroek, batek bi litro, besteak 5 litro eta horrela erosten ziguten. Hernanin berriz, batek litro erdi bat, beste batek litro bat... Hamazazpi urtetan aritu nintzen Hernanin esnea etxez-etxe banatzen.

## Eta berriro, hain maitea duzun baratzerara itzuli zinen?

**P.U.:** Bai, semeak bazuen baratzerako gogoia eta animatu nuen, eta Donostiako San Martin merkatuan postu bat erosi eta bertan hasi nintzen berriro saltzen. Orain, semeak darama bertako martxa, bera joaten da egunero, eta ni soilik egun batzuetan.

## Nolakoa izan da San Martin merkatu plazaren eboluzioa?

**P.U.:** Haur nintzela hango bazter guztiak baserriarren postuz josi-

ta zeuden, eta orain hogeit hamar postu gaude, horietatik bost Urnietakoak gainera. Gehiengo gara. Orduan gehiago saltzen zen, Donostiako dendariak ere guri erosten baitziguten generoa. Orain zailagoa da salmenta, jendeak sukaldean lanean aritzeko gogutxiago duelako. Horri aurre egiteko, saiatzen gara lana errazten eta horretarako barazkiak txikituta poltsatan jartzen dizkiegu. Plaza berari dagokionez, duela hamar urteko obrarekin erabateko aldaketa izan zuen. Ordurako jada zahartua eta

nahiko zikina ere bazegoen, orain, neguan kalefazioa eta udan haize egokitua daukagu, nahiz eta batzuetan kaltetarako izan, guk goizean eramandako barazki freskoak eguerdirako zimeltzen direlako.

## Zu entzunda badirudi berritzeko obrak plazaren xarma ere eraman zutela?

**P.U.:** Bai, orain ez baita baserri-tarren ohiko plaza bat, baizik eta baserriarren postuak ere badauden komertzial gune bat. Hala ere, Bretxakoek baino hobeto



Pili bizitoki duen Pagua baserriaren aurrealdean.

*"Semeak bazuen baratzerako gogoia eta animatu nuen. Donostiako San Martin merkatuan postu bat erosi eta bertan hasi nintzen berriro saltzen"*

gaude, haiek kalean daude eta eguraldi txarren eraginak sufrituz.

## Garestia al da bertan postu bat edukitzea?

**P.U.:** Baserriarren postuak dira plazako merkeenak, hilean 250 euro ordaintzen dugu.

## Nolakoa izaten dira plazara joaten zaren goizak?

**P.U.:** Goizeko zazpietarako joaten gara semea eta biok. Semea geratzen da postua antolatzen eta ni, bitartean, Kontxatik barrera Aquariumeraino paseoan joaten naiz. Udan Kontxako hondartzara jaitsi eta punta bategitik bestera ibiltzen naiz hankutsik uretatik. Mesede egiten dit. Ondoren, postua zortziretan irekitzen dugu, ordubiak arte.

## Nortzuk dira zuen bezeroak?

**P.U.:** Batez ere, Donostiako erdiguneko biztanleak, nahiz eta plazan bertan dagoen lurrazpiko aparkalekuari esker, beste lekuetakoak ere inguratzen diren.

## Turistak etortzen dira erostera?

**P.U.:** Bai, kataluniarrak asko, baita madrildarrak ere. Oporren bukaera aldera etortzen dira etxera eramateko produktuak erosten dizkigute: babarrunak, ilarra, errezil sagarrak...

## Eta gazteak?

**P.U.:** Normalean larunbatetan agertzen dira, zerbait berezixea-goaren bila. Produktu makrobiotikoak ere edukitzen baititugu.

## Noiz arte jarraituko duzu?

**P.U.:** Osasunak laguntzen didan arte. Hara joateak, bezeroekin eta inguruko postuetakoekin egoteak bizia ematen dit.



## San Sebastian eguna



Argazkian ikusten denez, ekitaldia ikustera guraso ugari bertaratu zen.

Urtero bezala Egape ikastolako Haur Hezkuntzako eta lehen, bigarren eta seigarren mailako ikasleek San Sebastian egunean santuaren izen bereko martxa jo zuten. Eta jarraian, Urnietako ereserkia. Bi doinuetan dantzari

lanetan aritu ziren Egape dantza taldeko kideak, Edu Muruamendiak dantzari eta irakasleak propio sortutako koreografia eskainiz.

Eguraldia paregabea izan zen. Guraso ugari hurbildu zen, gainera.

## Ipuin kontaketa saioa



Eizagirre eta Cheij ikasleen aurrean.

Presentacion de Mariako bosgarren mailako ikasleek Jexux Eizagirre euskaltzalearen eta Cheij Hernanin bizi den saharauiarren bisitaldia jaso zuten. Biek ikasleen aurrean Sahara aldeko ipuina kontatu zuten, "Chertat

eta lehoia" izenekoa. Euskaraz eta Hassanieraz, ipuina bi hizkuntzatan azaldu zuten. Ipuinak ikasle guztien jakin-mina piztu zuen. Hura amaitzean, Cheij-ek ikasleen galdera asko erantzun zituen.

## 'Oporrak bakean', deialdia

Aurtengo udan ere -uztaila eta abuztua bitartean-, hamar eta hamabi urteko Saharako haurra etxean hartzeko aukera eskainiko zaie Urnietako fami-

liei. Interesa dutenek informazioa jasotzeko aukera izango dute ostiral honetan, 17:30etik 19:30era Lekaion bertan.

## Lanak luzatu egingo dira



Salesiar ikastetxetik ITVraino doan espaloia konpontzeko eta ITVren parean zegoen zebraidea tokiz aldatzeko lanak aurreikusi baino gehiago luzatuko dira. Hasiara batean aurreikusitakoa baino lan handiagoa da bertan egin behar dena. Aurreko asterako baino, datozen egunetan amaituko dira lanak inguru hartan.

Larunbat arratsaldeko mozorro festan, 17:00etatik 24:00etara

# Inauterietan Idiazabal kalea itxi egingo dute

**M**itologia hizpide hartuta, inauteri festa nagusia otsailko lehen larunbatean ospatuko dute Urnietan. Aurreko asteazkenean jai batzordean gai hori hizpide izan zuten, eta bertan adierazitakoaren arabera, Udalak Idiazabal kalea oinezkoentzat bideratuko du arratsaldeko 17:00etatik gauerdiko 24:00ak arte. Beraz, ordu horietan errepidea trafikoarentzat itxi egingo dute. Udalak ohar bidez jaiaren antolatzaileekin lankidetzara iragari du, segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dituela iragartzearekin batera: "Urnietako Udalak, urtero egiten duen moduan, herriko elkarrekin lankidetzan jardungo du inauteriak modu egokian gauza daitezkeen. Horretarako beharrez-



Idiazabal kalea arratsaldean hasi eta gauerdira arte trafikoarentzat itxiko dute.

koak diren segurtasun neurriak bermatuko ditu. Hala, egun horretan Idiazabal kalea itxiko da 17:00etatik 24:00etara, inauterien harira antolatu diren ekitaldiak aurrera eramateko. Hala, Udalak egun horretan Idiazabal kalean gauzatuko den itxie-

ra hori kontrolatzeko bi pertsona kontratatuko ditu. Udalak, azkenik, herriko elkarrekin antolaketan egiten duten lanarengatik eskerrak eman nahi dizkie. Era berean, herritarrak ekintza horietan parte hartzera animatzen ditu".

Ostiral honetan 19:45etan Lekaion, Poxta Zaharren eskutik

## Ikus-entzunezkoa Lekaion

Poxta Zahar gazte asanbladak ostiral honetarako "Gure Kabuz ala hil" izeneko dokumentala eskainiko du Lekaion, iluntzeko 19:45etan hasita. Ondoren, pintxo artean solasaldia izango da Kalaka Komunikazio Parekidea eta GEZKI Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren institutuaren eskutik.

Dokumentala Crowdfunding bidez finantzatu zen eta egileek adierazi bezala, "Gazteak, prekaritatea, frustrazioa, etsipena, konformismoa... Gehiegi eta askotan elkarrekin sentitu



eta entzuten ditugun hitzak dira. Baina, izango da Euskal Herriko gazteentzat beste alternatibarik, ezta? Galdera horretatik abiatutako dokumen-

tala da esku artean duguna. Erantzunaren bila, Euskal Herri osoa goitik behera gurutzatzen ari gara kapitalismoaren logikatik kanpo eta autogestioan oinarrituz bide propioa egiten ari diren proiektuak ezagutzeko. Asko dira eta alor guztietakoak: hezkuntza, etxebizitza, elikadura burujabetza, zaintza, artisautza, finantzak, jaiak, kultura... Egunez egun ari dira frogatzen posible eta eraginkor direla gauzak beste la egiteko moduak".

Urtarrilak 29, ostirala.  
19:45. Lekaio.

### PARKEA

Etxeberrieta plazako haur parkea eraberritze lanetan izan da, aurreko egunetan. Lurzorua berritu dute, zentimetro bateko segurtasun goma berria jarri. Itxuraldatuta agertu da, kolore eta irudi berriekin. Helburuen artean dago bertan sortzen ziren urputzuak saihestea. Lan hori burutzeko aurrekontua 12.196,80 eurokoa izan dela dio Udalak.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza



JOSEBA MAIZA MEDIKUA

# Lesbos uharterean izan da hurkoari laguntza ematen

Joseba Maizak Lesboseko uharterean (Grezia) igaro du joan den abendua, bertara iristen ziren errefuxiatuei laguntza lanetan jardunez. Medikua da lanbidez, eta lagungarri izan zitekeela pentsatuta

joan zen hara. Ez zaio iruditzen balentria handirik egin duenik, eta ez da prentsan azaldu zalea, baina Aiurrirentzat bere bizipena kontatzeko prest agertu da.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

## Zein erakunderen bitartez joan zinen?

**J.M.:** Ez nintzen inongo erakundeekin jarri harremanetan. Bat-bateko kontua izan zen, eta nahiko inozoki joan nintzen; internetez jakin genuen Lesboseko iparraldean bazela emakume bat boluntarioak pittin bat antolatzen zituena. Haregana jo, eta hegoaldeko kostaldera bidali gintuzten, Mitilene hiriburutik 40 kilometroa.

## Nondik abiatzen ziren errefuxiatuak?

**J.M.:** Turkiako kostatik. Kilometro terdira besterik ez dago Lesbos, eta txalupa edo zodiac batekin ordu terdian har dezakezu lur bertan, baldin eta itsasoa bare badago. Oraindik jarraitzen du errefuxiatuen uholdeak.

Hegoaldean geundenok berrogei bat kilometroko kostaldea kontrolatzen genuen. Gauean hasi eta bihamunean eguadiako 12etan amaitzen zen gure txanda, arratsalde hartzen genuen atsedena. Bazegoen komunikazioa itxasorata zebiltzan errefuxiatuen eta Lesboseko kostan zain ginenen artean, whatsapparen eta geolokalizazio sistemaren bidez. Horri esker, bagenekien noiz ziren heltzekoak. Lur hartzea ondo bideratu behar zen, izan ere Greziako kostaldeak hondartzak bezala dauzka itsaslabarrak. Txaluparen bat noraezean bazebilen, kostaldetik 200-300 metrotara, orduan sorosleak irteten ziren haiek erreskatatzera.

## Gauak izango ziren arriskutsuenak, ala?

**J.M.:** Bai, egunez Turkiako kosta ikus zitekeen, baina gauetz... Gau ikusmeneko aparatuekin ibili beharra zegoen txalupak bistartzeko. Haize gaiztoen erruz, bistatik txalupa asko ezkutatu zitzaizkigun, eta



Joseba Maiza Lesbos uharterean lanean, errefuxiatuak artatzen.

ez genuen jakin non bukatu zuten haiek, zoritxarrez.

## Nongotarrak dira errefuxiatuak?

**J.M.:** Siriakoak ez ezik, baita Afganistan, Iran eta Irakekoak. Esaten zigutenez, 1.000 edo 1.500 euro ordaindu behar izaten dela txalupa edo zodiaken lekua hartzeko. Itxuragatik-eta, esango nuke siriarak beste herrialdeetakoak baino gizarte maila altuagokoak izaten zirela.

Urrutitik sumatzen genuen zodiaken bat kostaldera zertorrela, 20 lagun zenbatzen zentuen eserita. Baina gero, hurbildu ahala konturatzen zinen benetan, 50 bat lagun zetoze. Haurrak, helduak, aitona-amonak, batzuk gurpil aulkidunetan...

## Zein zen zure eginkizuna?

**J.M.:** Heltzen ziren errefuxiatuei oinarrizko atentzioa eskaintzea. Normalki erabat hoztuta, blai eginda eta beldurrez iristen ziren. Batez ere janaria, ura eta arropa lehorra eskaintzen zitzaien beste ezer baino gehiago. Egia esan, uste nuena

*“Siriakoakezezirik, Afganistan, Iran eta Irakekoak ziren Lesbosera iristen ziren errefuxiatuak. Itxuragatik-eta, esango nuke siriarak beste herrialdeetakoak baino gizarte maila altuagokoak izaten zirela”*

baino egoera hobegoan iristen ziren errefuxiatu gehienak. Zer nahi duzu esatea... Bada, nahiko bat-batekoa zela eskaintzen genuen laguntza. Bolondresek borondatea soberan erakusten genuen, baina antolaketa eta azpiegituran faltan sumatzen zen han.

## Egoera larriren bat egokitu al zitzaizun?

**J.M.:** Zorabiatuta edo hipotermiak jota iristen zirenekin jarduten nuen, normalki. Egin kontu askorentzat aurreneko aldia zela itsasoan sartzen zirela. Beharbada bizi izan nuen estuasunik handiena, epileptikoa zen hiru bat urteko haur baten kasua izan zen. Halakoe-tan premiazkoa da gaisoak es-

kaini diezazukeen informazioa, hots, zenbatero daukan krisia, nolako ezaugarriekin, e.a. Jakina, hark eta bere familiak arabiarrez hitz egiten zuten eta nik ulertzen ez... Haurra aguro batean ospitalera bidali beharra zegoen, baina familiak planto egin zigun, esanez: bederatzi kide gara familiar, eta denok elkarrekin jarraitu nahi dugu. Azkenean, nik alkilatuta neukan autoan eta lortu genituen beste bietan sartu, eta bidali ahal izan genituen denak ospitalera.

Une benetan larria bizi izan nuen orduan, eta balio izan zidan konturatzeko ez nuela ondo jokatu Greziara nire kasa joanda. Hurrengo batean, gauzak ondo antolatuta dauzkan GKEren batekin abiatuko naiz halako abentura batera, kontuan hartuta ingelesaz tutik ez dakidala, eta frantsesez moldatu naitekeela zerbait.

## Zein da Greziako gobernuaren jarrera?

**J.M.:** Polizia etorri zitzaigun behin, legez kanpo genbiltzala esanez. Beldur pixka bat sartu

*“Normalki erabat hoztuta, blai eginda eta beldurrez iristen ziren. Batez ere janaria, ura eta arropa lehorra eskaintzen zitzaien”*

ziguten gorputzean. Ezkutatu ibili ginen orduan, baina ez zuten gure aurkako neurririk hartu; nik uste bolondresak zertan dabilzan ulertzen dutela. Egunotan jakin dugu Sevilako hiru suhiltzaile atxilotu dituztela, pertsonekin trafikaztea egotzita. Haiek ezagutzea egokitu zitzaidan, eta ziurta dezaket besteok ez bezala arriskatzen zirela itsasoaren menpe noraezean zebiltzan errefuxiatuen biziak salbatzeko. Jakina, baimen ofizialik gabe aritzen ziren.

## Nora abiatzen dira errefuxiatuak behin lurra hartuta?

**J.M.:** Kostaldetik barrualdean dauden egoitzetara bideratzen dituzte errefuxiatuak. Lesbosetik egunero ferry bat irteten da Atenasera, errefuxiatuz josituta. Grezian bi harrera egoitzatan hartzen dituzte, baina askok aitortzen zigutenez, gehienek, Alemaniara batik bat edo eta bestela Ingalaterrara, Damimarkara edo Sueziara joateko asmoarekin uzten dute bizitokia.

## Zer iruditzen zaizu Europaren jokaera errefuxiatu horiekiko?

**J.M.:** Egoerak ez dauka irtenbide errazik, eta ez naiz egokiena zer egin eta zer ez esateko. Baina ez dago eskubiderik pertsona horiek errefuxiatu baten bizitza eramatera kondentatzeko. Are gutxiago haurrak, ezerean errurik ez baitute. Bizi maila altua daukan Europak gehiago egin lezake. Enpatia gehiago beharko genuke, gure aurreko belaunaldiek ere Ameriketara aterpea bilatu zutela gogoan hartuz. Bertakoek ondo hartu zituzten.



URTARRILAREN 23AN USADIOZKO PUSKA BILTzea EGIN ZUTEN

# Puska biltzea Goiburu aldean

2013az geroztik Andoaingo Axeri dantzako kideek aspaldiko usadioa berreskuratu dute, Puska biltzea izenekoa. Iaz Buruntza auzunean ibili eta gero, aurtan Goiburu aldean izan ziren. Bertako baserrita-

rrek harrera beroa egin zieten, partaideentzat egun pasa ederra izanik. Inauterien atariko bilakatu da axerrien irteera. Mikel Telletxeak egindako paellarekin errondari amaiera eman zioten.



Juandaleizaena berri baserriko Mertxe Manterola eta Andoni Amantegi.



Sorieku etxeko Arantxa Aizpuruak axeriren zapia jaso zuen.



Pagota etxearen aurrekaldean arin-arina eta fandangoa dantzatu zuten.



Merdilegi baserrian, gainerako baserrietan bezala, hamaiketako ederra eskaini zieten axeriei.



Axeri dantzako kideak Goiburuko auzotarrek. Bideoa eta argazkiak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



Basogain baserrian harrera egin zieten Rosario Garaikoetxeak eta Joxe Mari Urolak.

*Sagardo kata-maridajea Andoainen*

19:30. Santa Krutz Peña elkarte.  
Otsailak 11, osteguna.

Guillermo Castaños, enologoa  
Unai Agirre, Sagardogileen elkarte

Aiurriko harpidedunentzat  
eskaintza berezia.  
Doako saioa.

Sagardo ezberdinak dastatzen  
ikasteko aukera paregabea.

Kopuru mugatua:  
25 lagun.

Izen-ematea, ezinbestekoa:  
943 300 732 / idazkaritza@aiurri.com





Sozialistak hainbat partidarekiko kritiko agertu dira

## Aurrekontuei ezezkoa emango dio PSE-EEK

Urtarrilaren 15ean EH Bildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi alderdiek Udal aurrekontuei onespina emateko agerraldi bateratua deitu zuten. Astebete beranduago, urtarrilaren 22an, Andoaingo PSE-EEK aurkako botoa emango duela iragarri zuen. Atzera begira jarri eta sozialistek diote ez dutela aurreko agintaldiaren "frakaso" estali nahi: "Azken urteotan Andoaingo Udalaren kudeaketan EH Bilduk izandako frakasoaren ondorio dira 2016ko aurkeztu dituzten aurrekontuak. Aurkako botoa emango dugu ez dugulako aurreko agintaldiaren kudeaketa kaskarraren erantzule izan nahi". Horiexek Maider Lainez sozialisten buruzagiaren adierazpenak.

Aurrekontuen hainbat partidekin kritiko agertu ziren. Udal teknikariek ur hoditeria berritzeko aurtengorako 1.691.000 euroko inbertsioa proposatzen zutela eta, azkenean adostu dena 1.300.000 euroko inbertsioa izatea kritikatu dute. Alde horretatik sozialistek akordioaren



Garcia, Lainez, Parron eta Romero Udal ordezkariak, aurreko ostiraleko agerraldian.

*Atzera begira jarri eta sozialistek diote ez dutela aurreko agintaldiaren "frakaso" estali nahi*

sinatzaileek azalpenik ez dutela eman salatu dute.

Lehendik ere presoen bisitaldiak diruz laguntzea kritikatu izan dute, eta oraingoan ere kritika horri eutsi diote, "gizarte zerbitzuetako beste partidatan 50.000 euroko gehikuntza iragarri dute, baina zertarako?"

Norentzat? Nahiz eta Irabazi, Ganemos eta EAJ horrekin ados egon, ikaragarria iruditzen zaigu guri. Gizarte laguntzen partiden igoerarekin herritarrek nahasten dabilta".

Harridura azaldu dute ere haien ustean bosgarren edukiontzia txertaketa ez delako argi eta garbi azaltzen.

Bukatzeko, gobernu taldeak iragarri duen urteko aurrekontu planaren garapenarekiko mesfidantza erakutsi dute. Planifikaziorik ez dutela aurkeztu leporatu diote EH Bilduri.

Andoaingo alkatetza eskatu dute, Gasteizko gobernuan sartzeko

## Arabako PSEren eskaera

Urtarrilaren 25ean, El Mundo egunkariak Arabako PSE-EEren adierazpenak bildu zituen, zeinean Andoaingo alkatetza berri ere hizpide izan zuten. Albisteak honela zioen: "PSE-EEK Jose Antonio Suso Arabako jeltzaleen presidente berria-

ri Gasteizko gobernu taldean sartzeko ezezkoa helaraziko dio, ez badiote lehenago Andoaingo alkatetza Maider Lainezi errazten".

Arabako PSE-EEKo idazkari nagusi Cristina Gonzalez da, eta astelehenean adierazi zue-

nez, Lainez alkate izendatuko balute Gasteizen PSE-EEKo zinegotziak "automatikoki" gobernu taldean sartuko lirakeke.

Gasteizko albiste horren harira, Maider Lainezek adierazpenik ez zuela egingo adierazi zion Aiurri astekariari.

"Filtrazio interesatuen" aurrean, akordioa nabarmendu dute

## EH Bilduren deialdia

EH Bilduk garrantzia berezia eman dio ostegun honetako Udal batzarraldiari: "Berezia izango da guretzat; izan ere, 2016ko aurrekontuak gehiengo zabal baten bitartez onartuko baitira. Erabaki garrantzitsu baten aurrean aurkitzen gara; gogoratu behar dugu Udalak 2012. urtean onartu zituela azkenengoz aurrekontuak. Horrek arazo larriak ekarri ditu udal kudeaketan, eta beraz, blokeo egoera ho-

rretatik ateratzeko ezinbesteko tresna da aurrekontua". Lortutako adostasun zabalarekin pozarren daude, gainera: "Lau alderdik babestuko dute (EHBildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi), Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabik. Ekarpinak egin nahi izan dituzten eta egin dituzten alderdi guztien arteko adostasuna da. Andoaingen aniztasun politikoaren argazkia ere bada osteguneko".

Akordiora batu ez den sozialistekin kritiko agertu da: "Azken egunotan PSE-EE alderdiak akordio honi garrantzia kendu nahi izan dio bestelako filtrazio interesatuen bidez. Inolako proposamenik egiten ez dutenek, giroa nahastuz akordio honi garrantzia kendu nahi diote".

Azkenik, herritarrei ostegun honetako plenora agertzeko deia luzatu diete. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

## Andoaingen Podemos alderdia osatzeko bilera



Abenduan kanpainan izan ziren alderdiko kargu politiko ezagunenak.

Abenduaren hogeiko Haurtekin Orokorretan Podemos alderdiak lehen indarra izatea lortu eta gero, Andoaingen lan taldea eratzeko bilera deitu dute Urigainen. Larunbat honetan izango da, urtarrilak 30, goizeko 11:00etan hasita.

**Postontzia:**  
**ANDOAINGO PODEMOS-AHAL DUGU ZIRKULUAREN ERAKETA ETA AURKEZPENEA**

"Herritar ekimenak bultzatuta, Andoaingo Podemos-Ahal Dugu zirkulua eratuko da, udalerriko persona guztientzat irekia den organoa,

adierazpen demokratikorako eta partaidetarako.

Zirkuluaren sorreraren ekitaldian Gipuzkoako Kongresuko diputatua Nagua Alba, Gipuzkoako Batzarretako bozeramaile Juanxo Iturria, Hernaniko idazkari eta zinegotzi David Guirado, Errenteriako idazkari nagusia Ion Collar eta eskualdeko beste zirkuluetako kideak bilduko dira.

Informazioa jaso eta parte hartu nahi duten auzotar guztiak gonbidatzen ditugu Urigain kultur etxean goizeko 11:00tan hasiko den ekitaldira".

## Kaldereroen etorrera, ostiralean hasita



Ostiralean eta larunbatean herrian barrena kalejira bana egingo dute.

Kaldereroen bi konpartsa iragarri dituzte aurten Andoaingen, azken urteetan egin bezalaxe. Mozorrez lagunduta, zartagin hotsak Andoaingo kaleetara zabalduko dituzte. Jai giroa somatzen hasiko da orduan, inauterien etorrera iragarritzen baitute.

Urtarrilaren 29an (ostirala), arratsaldeko 15:30ean Ondarreta ikastetxeko jolas-tokitik irtingo da kaldereroen konpartsa. Ikastetxe horretako haur, irakasle eta gurasoek hartuko dute parte. Zumea plazarainoko joan etorri egingo dute, Ondarre-

tako jolastokian bertan kanpaldia kokatuz.

Biharamunean, larunbaterekin, Ontza elkartetik irtingo da bigarrenko konpartsa. Zahar egoitzara abiatuko da taldea, 17:00ak aldera bertan bizi diren herritarrei bisita egin eta gero. Ondoren, ohiko ibilbideari ekingo diote Andoaingo kaleetan zehar. Goikoplazara 17:45ak aldera iristeko asmoa daukate; bertan kanpaldia antolatzenko. Joxe Mari Oiartzabal musikariaren gidaritzapean jardungo dute guztiek ere; musika, berriz, Gora Kale Txiki txarangak jarriko du.





FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Gobernu berriari dagokionez: Fumata zuririk ez!

**E**liza katolikoan kardinalak, leku itxian Aita Santu berria aukeratu behar dutenean fumata zuriak Aita Santua badela esan nahi du; fumata beltza bada, aldiz, oraindik kardinalak ez direla ados jarri diren seinale da. Bada, Estatu espainiarrari buruz, ez dago fumata zuririk. Espero nuen honi buruz idaztea, baina oraingoz esan daitekeen gauza bakarra da dena airean dagoela. Fumata zuria zain jarraitzen dugula.

Kongresuko Diputatuen osaketa, ordea, egin da, eta forma aldetik bitxia eta berezia izan da. Lehenik Kongresuko mahaia eraiki zen eta, aipagarria izan zen: PPren eta Ciudadanosen gehiengo izango du eta aipagarria da hori zeren eta hor onartzen baitira lege proposamen eta beste zenbait gairi bidea eman hastea. Mahai eta Kongresu buru guztioi ezaguna egiten zaigun Patxi Lopez jarri du PSOEek; kritikagarria izan daiteke, baina nik PPKoren baten aurretik bera nahiago. Entzuten zenez, gainera, gaurko Barne Ministroa zen PPren hautagaia. Beraz, politikan jakin behar da bereizketak egiten, eta ezin daiteke sinpleki denak berdin direla esan eta kito. Dena den, esan bezala, osaketa forma aldetik bitxia eta ustekabea izan zen. Podemoseko hautagaiak indartsu sartu ziren; garbi zuten kaleko jendea ordezkatzeko zutela; ez zirela traje eta gorbatadunak; bere janzkera propioa zutela eta politikagintzan formak eta itxurak ere edukia bezain garrantzitsuak direla. Baina, batik bat, herritar gisa agertzeko nahia nabarmenduko nuke nik. Atentzioa gehien sortu zutenak rasta orrazkera zuen diputatu kanariarra edota haurra besoa zuen Carolina Bescansa izan ziren. Sare sozialetan kanariarra eta Patxi Lopez bata bestearen ondoan jarri zituzten eta galdetu ere galdetzen zuten: eskubikoa ala ezkerrekoa duzu gustuko? Kanariarrak goi mailako ikasketak izan behar ditu, eta Patxi, dirudienez, soilik karrera politikoa du. Beraz, ezkerrekoak aldaketaren alde gehiago egin dezake, noski. PPKo Celia Villalobosek ere mutiko honek zorriak izango zituelako susmoa ere jaurti zuen; baina, erantzuna azkar jaso zuen: nahiago rastak, gorbatadun ustelak baino. Erantzun bikaina. Carolinak, bere haurrarekin ere eman zuen zer esana. Hautxoak pozik pasa

*“Laster aterako da ke zuria eta orduan jakin ahal izanen dugu gauzak eskubira ala ezkerreara joandiren. Ezkerreara joango al dira!”*

zuen bataren eta bestearen besapean. Seguruenik gogoratuko dela nagusi denean zein maitatua eta estimatua izan zen. Emakumearen jarrera edo portaera horri kritika asko egin zaizkio, baina, nire irudiko, sinbologiatik haratago eduki edo esan nahiari begiratu behar zaio eta, seguruenik, hainbat emakumeren egoera salatu nahi zuen. Bateko eta besteko, nik uste, kide berriek aire berri bat eman diotela Kongresuari. Kaleko isla dira. Asktasun osoz egin behar dira gauzak eta, hor ere, aniztasuna baldin badago, askoz hobea!

Gobernuaren osaketari begira, Podemosek PSOE tirabiran jarri du, esan baitio balizko ezkerreko gobernuan sartzeko prest daudela zenbait kargu onartuz. Proposamen honek erabat jokuz kanpo utzi ditu PSOEkoak. Ez zaie gustatu forma zein edukia. Bestalde, nork baieztatu PSOEren barne iskanbilak Pedro Sanchez izango zela dioen nahi duena egiten. Hor dago Andaluziako Presidenta frenoak jartzeko. Labur esanda: laster aterako da ke zuria eta orduan jakin ahal izanen dugu gauzak eskubira ala ezkerreara joan diren. Ezkerreara joango al dira!

Zutabea bukatu aurretik bi aipamen labur: Bata, Aiurritik Zorionik beroenak bidali nahi dizkiot Argentinako bidaian lagun izan nuen Ascension Mendietari. Egun hauetan, hain zuzen, burutu ahal izanen du bere ametsa: bere aitaren hezurak Guadalajarako lurpetik atera eta hilobiratu egingoko dituzte. Berak esana du: hiltzen denean aitaren ondoan nahi lukeela bere gorpua. Argentinako bidaia ezen alferrikakoa izan eta horra lehen fruitua. Etorriko al dira beste asko! Besarkada bat Ascension, zurekin gaude!

Eta bestea, oroimen xumea, hau ere Aiurritik Donostian San Sebastian bezperan hil ziren bi etxerik gabekoei. Boulevarden ezagunak ziren eta Donostia ponpa eta danbor artean ospakizunean zegoen bitartean hil ziren.

## HITZ-GEZIDUNAK

		Tomismoaren jarraitzailea	Eroki	Bizarra egitekoa
		Gai gozo	* IRUDIKO HERRIA	Bibliako eskualdea
		Mirespenaz		
		Gizaseme heldua		
Herri baxenabartarra	Oso garbiak	Kalentura		
Industriari dagokio	LP-a	Europako estatua		
Heureak			Sodioa	
Ur basa			Agiri mota	
Ukabilkada		Kasik		Boroa
Ur gezako arrain		Alemaniko ibaia		Zangoaren atal
			Errep., komiki-tietan	
			500	
Bizkaiko herria	Multzoa, taldea			

## HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

**EZKER ESQUIN:** 1.- Gazituak. 2.- Urnioaren ikur kimikoa. Bezeroek osatutako multzoa. 3.- Atzizkia. Ipar Euskal Herrian, ninduten. 4.- Gora egin. Zigoitiko herritarra. 5.- ...dale, eman eta eman. Aranondoaren fruitu. 6.- Euririk gabeko eguraldia. Intsektu mota. 7.- Nolakotasuna. Uribe Kosta. 8.- Jipoitzera behartu. Zero. 9.- Hautatua.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Urrikaldua. 2.- Lehenengo bokala. Egitasmo. 3.- terbioaren ikurra. Diosal hitzak. 4.- Zegoen. Esteribarko herritarra. 5.- Gari sorta. Argi izpi. 6.- Teilatuko pieza. Barazki hostotsua. 7.- Urte sasoi. Idi, hitz elkartetan. 8.- lhes eragin, uxatu. Bokala. 9.- Kanonen edo arauen arabera

## HIEROGLIFIKOA



Zer gaitz mota da hori?

## ERANTZUNAK

**EZKER ESQUIN:** 1. Gatzak. 2. U. Behera. 3. Pe. Naiten. 4. Igo. Olano. 5. Diti. Aran. 6. Aleri. Oiti. 7. Tasuna. UK. 8. Umarazi. 9. Aukeratu. **GOITIK BEHERA:** 1. Gupitua. 2. A. Egitasmo. 3. Td. Olesak. 4. Zen. Irure. 5. Azoo. Inar. 6. Tella. Aza. 7. Urtraro. 8. Aienatu. 9. Kanonikoa

B	I	Z	A	R	A	L	A	B	A
Z	O	R	A	Z	A	L	A	B	A
T	G	M	G	S	S	T	R	I	A
	G	O	Z	I	Z	O	N	A	
	A	D	I	R	E	A	K	I	A
	I	N	H	S	U	R	E	R	I
	A	P	U	S	T	R	I	A	L
	I	N	H	S	U	R	E	R	I
	B	A	S	U	R	E	R	I	A
	I	Z	O	K	I	N	A	N	A





# KIROL ALBISTEAK

## Denboraldi bikaina borobiltzeko aukera



Zumaia Pulpo, Bilboko Eskolapios eta Gateizko Corazonistas taldeak aurkari izango dituzte asteburu honetan, Zumaian.

Leizaran eskubaloitako taldeko jubenil mailakoek ligaskan lehen postuan amaitu eta gero, Euskadiko txapelketan jokatzeko igoera fasea jokatuko dute asteburu honetan. Egin duten ahaleginagatik, klubak txalotu egin du jubenil mailako kementa. Bide batez, igoera faseko partidatara mutilak animatzera joateko gonbitea luzatu dute.

Albistea bikaina da, eta orain denboraldia borobiltzeko aukera izango dute. Arantza txiki bat izan du aurtengo

*Euskadiko txapelketan jokatzeko igoera fasea jokatuko dute Zumaian, asteburu honetan*

lehiak, izan ere Gipuzkoako txapelkun-orde geratu baitira. Txapelketa hori ligako lehen bi sailkatuek elkarren aurka erabaki behar zuten. Bi partidatara, ligan bigarren sailkatutako Elgoibar izan da txapelketa eskuratu duena. Klubak kiroltasun osoz zoriondu ditu aurka-


riak: "Zorionak Elgoibarko jubenil mutilei, Gipuzkoako txapelkun izateagatik. Zorionak gure mutilei ere, txapelketa hasieratik egin duten ahaleginagatik. Asteburu honetan jokatu den igoera fasean jarrai dezatela indar eta gogo berdinarekin".

Aste honetan zehar jakingo da non izango diren astebukera hortako norgehiagokak, "beraz adi egon eta Leizaran eskubaloitik mutilen taldeari animatzera eta laguntzera joateko deia luzatzen dizuegu".

## Marka pertsonal ugari Neguko ligaren amaieran

Aurreko larunbatean Neguko Ligari amaiera eman zioten Lasarteko igerilekuan. **Buruntzaldea IKT** taldeak amaiera polita eman dio. Absolutuen maila ohi bezain ongi aritu zen **Mikel Esnal**. 50 librean eta 100 estiloetan aritu zen, bietan erabat nagusi izanik. Aste honetan **Haitz Mitxelena** eta **Mikel Esnal** Gijonen izango dira master mailako Espainiako Neguko Txapelketan parte hartzen.

Juniorretan, **Unai Irigorasek** 50 libre eta 200 librean marka pertsonalak egin zituen, lehe-



nengoan 29:10 eginez eta bigarrenen 2:18:15 egitea lortuz. **Daniel Herranzek** ere 100 bular proban bere marka berria (1:33:34) ezarri zuen, aurrekoa 4 segundutan hobetuz. Gauza bera egin zuen 200 librean (2:46:66).

Infantilen 50 libre proban, **Xabier Alonsok** (30:47) eta **Ane Otaegik** (34:41) marka pertsonalak lortu zituzten. Kategoria berean baina 100 bizkar proban **Jon del Rio** bere aurreko marka hamar segundutan hobetu zuen (1:23:20). **Ane Otaegi** 100 estiloetako marka hobetu zuen (1:30:37).

Larunbat honetan, klubak Allurralden benjaminen ligako 2. jardunaldia eta alebilen ligako 4. jardunaldia antolatuko du. Benjamin mailakoa 15:45etan hasiko da, eta alebilen 18:30ean.

## "Emakumea korrikalaria" ekimen berria Andoainen

Andoaingo kirol zerbitzuen eta Udaleko berdintasun sailaren eskutik, 35 urtetik gorako emakumeen artean kirola sustatzeko ekimena aurkeztu berri dute. Zehazki esanda, otsailaren 11tik maiatzaren 31ra arte korrika aritzeko ekimena martxan jarriko dute. Taldean egingo da, eta helburua "astean behin edo bitan kirola modu osasungarri eta dibertigarrian egitea da". Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 5era arte, Allurraldeko kiroldegian bulegoko ordutegian. Asteleheneetik ostiralera 09:30etik 13:00etara eta asteartean eta ostegunetan arratsaldeko 17:30etik 19:30era.

### IZASKUN JAUREGIREN ESANETARA

Allurraldeko kirol ikastaroetan irakasle aritzen da, eta hark jaso du ekimen berria martxan jartzeko enkar-



Jauregi eta Mujika, aurkezpenean.

gua: "Proposamena jaso izanak ilusio handia eragin zidan. Gustuko dut korrika aritzea, eta aukera hau talde bat osatzeko aukera bikaina eskaintzen du. Erronka polita da niretzat. Helburua aktibazioa litzateke, eta ez lehiaketa baterako prestatzea. Talde txo bat osatu eta gradualki abiatuko ginateke. Hasieran oinez, korrika minutu pare batez edo, piskanaka denbora tarte horiek areagotuz". Ekimen berria Berdintasunaren planean txertatu dute.

## On Bosko II. krosa

### Gizonezkoak:

1. Andoni Olazagirre	23:31
2. Raul Gomez	23:45
3. Jon Garaiartabe	24:34
1. urnietarra: Unai Lizeaga	25:36
1. Maitane Guerrero	26:56
2. Nere Arregi	27:37
3. Lourdes Colomo	28:35



## Areto futbol txapelketa

### A taldea, bigarren jardunaldia

Urtarrilak 31, igandea.  
Txalaka-Centro Extremeño:  
10:00. Arrate.  
Aure Maiton-Dad Kutxa:  
11:00. Arrate.  
Ozu-Ekhia:  
12:00. Arrate.

### B taldea, bigarren jardunaldia

Urtarrilak 30 eta 31.  
Ondarreta-Ekaitz:  
Larunbata, 30. 14:30. Allurralde.  
Drink Team-Hogar Extremeño:  
Larunbata, 30. 15:30. Allurralde.  
Egur-Academia G.F:  
Igandea, 31. 09:00. Arrate.

## Ganbara saski taldea

### Aurreko asteburuan:

Andraitz 38-64 Ganbara SenM  
Ganbara JubM 64-58 Askatuak  
LEK 44-30 Ganbara InfM

### Partidak Allurralden,

urtarrilak 30, larunbata:  
09:00. Ganbara InfM-Axular.  
19:15. Ganbara SenM-BKL

## Futbola, asteburuko partidak

### ERREGIONAL OHOREZKOA

19. jardunaldia:

Orioko 0-3 Euskalduna

Sailkapena:

1. Tolosa	41 puntu
11. Euskalduna	25 puntu

### PREFERENTE MUTILAK

17. jardunaldia:

Martutene 1-2 Urnieta

Sailkapena:

1. Añorga	39 puntu
5. Urnieta	33 puntu





# “Murias-Euskadi niretzat azken trena da”

Sakrifizioak egiten ohitua dago 23 urteko Mikel Iturria urnietarra. Egun bete izan da astelehena: Murias Euskadi taldearen aurkezpen ekitaldia, taldekideekin bazkaria, masajea... entrenatu ez due-

nez, goseari zigorra. Aiurriekin jarritako hitzorduan entsalada bat bakarrik afaldu du. Txirrindulari profesional gisa bidea egiteko azken trena hartu du Jon Odriozolarekin.

**M**ikel Iturriak ere gauzak garbi ditu: akatsik ez, eta lana, emaitza onei esker bizikleta gainean lanean jarraitu ahal izateko. Hainbat itzulitan hamar onenen artean sailkatu nahi luke. Jarraitzeko bermea non dagoen ere badaki: “Route du Sud-en Top 5 egingo banu, egina”.

**Urrian eskaini zenion elkarrizketa Aiurri-ri, artean talderik gabe zeundela. Hiru hilabete geroago baduzu, Euskadi Murias. Zer gertatu da hiruhileko horretan?**

Esperantzari eutsi nion uneoro. Ordezkarri baten bidez beti egon da aukeraren bat txirrindulari izaten jarraitzeko. Jon Odriozola taldeko kirol zuzendariarekin bildu ginen egun pare batean, ados jarri eta hemen nago. Abantail txiki bat baneukan. 23 urte ditut, eta Kontinental mailan taldeko txirrindularien %70a 25 urtetik beherakoa izan behar da. Euskadi Murias taldearen kasuan 14tik 10 txirrindulari. Tropeleko euskal talde bakarra da, eta kontent nago.

**Mahai gainean eduki zenuen eskaintza bakarra izan al zen?**



Andoni Urbistondoren elkarrizketak, oraingoan Mikel Iturria txirrindulariarekin. Mahai-kide izan zuten Asier Atxaga herrikidea.



Mikel Iturria, Euskadi Murias taldeko txirrindularia.

Ez. Beste bat ere bazegoen, baina hobe eskaintza horretan sobera ez pentsatzea. Aukera on bakarra Euskadi Murias taldearena izan zen.

**Ospakizun berezirik egin al zenuen kontratua sinatu ostean?**

Ez. Banekien zer egin nuen, zer merezi nuen, eta espero

nuen egoera baten baieztapena izan zen.

**Abendu hasieran sinatu zenuen. Zer egin duzu, ondoren?**

Berandu hasi gara. Orbearekin berandu lortu zen akordioa, horrek arroparen etorrera ere atzeratu du, baina hasi gara, eta gaitzerdi. Pixkanaka asuntua martxan hasi da. Datorren astean lehiaketak hasiko dira eta errepideetan barrena ibiliko gara.

**14 txirrindulariko taldea osatu du Odriozolak. Zer moduz talde dinamikan?**

Ondo. Gehienak ezagutzen ditut, gutxi-asko. Batzuen taldekide izan naiz, besteen entrenamendu kide... Horrek asko erraztu du harremana.

**Kontinental-Profesional mailako taldea izan zitekeela esan zen,**

**baina azkenean 3. kategorian, Kontinental mailan geratu da Euskadi Murias. Atzerapauso bat al da?**

Nik sinatu nuenean jakina zen 3. maila horretan lehiatuko ginela. Jakina, Kontinental-Profesional mailan lehiatuz gero Euskal Herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoa korrituko zuen taldeak, eta agian Espainiako Volta. Tira, zer dagoen asumitzen duzu, eta dagoenarekin aurrera egin. Ea aurten go lanak etorkizun hobeagoa ekartzen digun.

**Zergatik lortu duzu tokia Euskadi Murias taldean? Zergatik fitxatu zaitu Odriozolak?**

Beno, 2015ean afizionatuetan, itzulietan, Espainiako txirrindulari onena izan naizela uste dut.

**Hori zer da, bilbotarkeri bat?**

Ez, ez. Emaitzak begiratu nahi dituenak hor daude. 6 itzulitan hiru onenen artean sailkatu naiz, eta podiumetik kanpo geratu nintzen proban 5. sailkatu nintzen. Frantziar eta Italian egun profesional diren hainbat gazterekin korritu nuen, eta orain profesionalak dira. Batek daki, antzera jarraitzen badut, agian urte batzuk barru Pro-Tour egutegiko itzuliren batean aurrean ibiliko naiz. Baliteke egoera okertzea ere, baina nire ustez orain tokia eduki behar nuen Euskadi Murias taldean.

**Esan duzu Odriozolarekin bildu zarela. Zer esan dizu?**

Bere asmoak zein diren esan zidan, nik nire helburuak zein izan zitezkeen, non eman dezakedan neurri onena... egutegi bat adostu dugu.

**Hasi al zara lanean?**

Kontratua sinatu aurretik. Ba-

nekien korritzen jarraituko nuela. Non, ze taldetan ez, baina tropelean jarraituko nuela bai.

**Kontzentrazio pare bat egin dituzu Mediterraneo aldean. Taldekideekin bata, eta Giant-Alpecin taldeko kideekin bestea. Zer moduz ibili zara?**

Gustura. Normalean eguraldi on eta epelaren bila jotzen dugu haruntza. Abenduan ere eguraldi ona izan genuen Euskal Herrian, entrenatzeko egoia, eta orain bi aste egin ditut Benidorm aldean. Mendate ezberdinak igo, hotelean gustura egon, gauzak ikasi...

**Nolatan Giant-Alpecin taldekoekin batera?**

Beno, ordezkarriak hitz egin zuen beraiekin, ea posible zen, eta baiezkua eman zuten. Han txirrindulari asko biltzen gara garai hauetan.

**Neurria eman al duzu, edo haien erritmoa ezin ibili zara?**

Ondo, arazorik gabe. Batzuk baino okerxeago, baina beste batzuk baino hobeto, esprinter asko baitituzte, eta ni haiek baino igotzaile hobea naiz. Oso profesionalak dira, dena antolatua dute, alemaniarrak eta holandarrak dira. Zorrotzak dira, langileak oso.

**Urtebeterako sinatu duzu. Ze helburu duzu?**

Benidormen denak egon ginean finkatu genuen egutegia. Nik Odriozolari ondo non eta noiz egon nahi nuen planteatu nion, bera ere ados samar zegoen, eta helburu berak ditugunez, ba aurrera. Lasterketa gutzietan lan ona egitea da asmoa, garaipenak lor ditzaketenei laguntzea, gure burua erakustea.





# KIROL ALBISTEAK

## Egutegiaren xehetasunen bat emateko modurik bai?

Apirila, maiatza eta ekainean ibili nahi nuke ondo. Etxeko lasterketak (Zornotza eta Lizarrako Sari Nagusia), Asturiasko Itzulia, Gaztela-Leongo itzulia, gero Route du Sud Frantzian, eta abuztuan bi aukera: Burgosko Itzulia edo Portugalgoa. Ikusiko dugu.

## Eta zer litzateke zuretzat denboraldia ona izatea?

Itzulietan onenen taldetxoan egotearekin, konforme. Izan liteke aurrerago edo atzeraxerago, baina onenen alboan egotea. Ambizioa hori da.

## Ulertzeko moduan zer esan nahi du horrek? Hamar onenen artean sailkatzearekin bale?

Beno, ikusiko dugu. Prestakuntza nola doan eta beste, 10 onenen artean egotea txarra ez. Ibilbideak ere ez ditut aztertu zehatz, batzuk ez dira jakitera eman... Gaztela-Leon, Asturiasko Itzulia eta beste ezagutzen ditut. Tamainako itzulietan 10 onenen artean egiten ez badut, akaso ez dut etorkizun askorik merezi txirrindularitzan, ezta?

## Postu onak dituzu jomugan, jakin badakizu ez zarela garailea.

Hala da, bai. Beno, uneren batean aukeraren bat sortuko da, garaipenen bat lortzeko.

## Erregulartasunak errentagarritasunik ekartzen al du?

Nire ustez bai. Taldeek askotan ziurtasuna bilatzen dute, txirrindulari bat aurreko postuetan edukitzea atsegin dute. Nahiago dute sailkapen nagusietan postu on asko egiten dituen txirrindulari bat, bermea emango diena, garaipenak bilatu eta beti seigarren edo zazpigarren geratzen den txirrindularia baino. Gainera, erregulartasun baxarra bazara, eta aurrean ibiltzeko gaitasuna baduzu, lan egiteko orduan ere laguntza ona eman dezakezu. Talde gizon izateko gaitasun horrek ere laguntzen du.

## Ze paper jokatu du Mikel Iturririk Euskadi Murias taldean?

Taldeko erreferenteetako bat izan beharko nuke, beste batzuekin batera.

## Talde barruan zaude, Jaurilaritzak babesa emango ote zion airean



Aiurriri elkarrizketa eskaintzeko astelehen iluntzean tarte bat hartu zuen. Hurrengo egunean Mediterraneo aldera jo zuen azken prestaketak egin eta lehiatzen hasi asmoz.

## egon da luze. Nola bizi zian duzue zuek egoera, ze etorkizun sumatzen duzue?

Beno, hasiera zaila izan da, baina egoerak hobera egitea espero dugu, eta datorren urtean Euskal Herriko Itzulia korritu ahal izatea, adibidez.

## Hau da zure azkeneko trena txirrindularitza ofizio izateko?

Bai, atzerapausorik ez dago dagoeneko. Bidea egiten badut, ederki, eta hala ez bada, ba lanean hasi behar zerbaitean. Afizonatu mailara bueltatzea ezinezkoa litzateke.

## Ez duzue uste, dena den, halakorik gertatuko denik, ezta?

Ez. Edo ez nuke nahi. Egoera hobetzen ari dela esango nuke. Iraganen Qatarko Itzulira joaten ziren talde asko Valentziara etorriko dira aurrean, telebistak ere proba hura eskainiko du, ekonomia gero eta hobeto dagoela dirudi... hori ona da taldeak indartzeko, txirrindulariok aukera gehiago izan ditzagun.

## Kontinental-profesional maila ezagutzen duzue Euskadi Fundazioan egon zinenean (2014 urtea). Zertan hobetu behar duzula uste duzue?

Jarraikotasun handiagoa lanean. Entrenatu gogor, eta etxean zaindu. Horretaz gain, eskarmentua. Urteen joan-etorriaren lasterketetara ondo nola iristen ikasten duzue, lasaitasuna mantentzen bezala.

## Kontinental-Profesional mailatik afizonatueta egin zenuen atzera 2015ean, orain kontrako prozesua. Zer irabazi duzue?

Motibazioa, zalantzarik gabe. Iazko neguan gertatutakoa atzerapausoa da. Oraingoa koska bat igotzea, eta gauzak ondo egiteko, edo saiatzeko ikaragarritzko gogoia daukat.

## Entsalada bat bakarrik afaldu duzue. Aspaldi Abraham Olanok esan zuen, entrenatzen ez bazuen, ez zuela jaten. Zuk gaur ez duzue entrenatu eta gutxi jan behar, ala?

Beno, taldearen aurkezpenaren

ondoren bazkaria ere izan dugu. Arratsaldean arrabolean ibiltzeko asmoa nuen, baina ez dut denborarik izan... Despitare bat eta nahi ez duzun pisua hartzen duzue, oso kontuz ibili beharra daukagu!

## Benidorm aldean Tudons mendatean ibili zarete serieak-eta egiten. Urnietan non egiten dituzue?

Test bat egin nahi dudanean tren geltokitik Xoxokaraino egiten dut, bete-betean. Serieak, aldiz, Alkizan gora, Andazarraten, Bianditz, Aritxulegi eta Agina, Jaizkibel...

## Zenbat denboran igotzen zara geltokitik Xoxokaraino?

Zortzi minututik behera. 4,3 kilometro daudela uste dut, geltokitik frontoiraino. 26 edo 27 kilometro orduko batez bestekoa egiten dut.

## Plater handian igotzen al duzue?

Nahi izanez gero bai, baina plater handian igota pott egingo nuke gora iritsi baino lehen. Plater txikiarekin Etzabal-berri baserrira arte, gero handia jarri eta Larburuko maldako azken metroetan berriro plater txikia.

## Zer eskatuko zenioke denboraldiari?

Osasun ona eta erorketekin eta zorte apur bat edukitzea.

## Zerk bermatuko lizuke txirrindularitzan urte gehiago jarraitzea?

Route de Sud-en lehen bosten artean sailkatzea, adibidez.

## Port de Bales, Tourmalet... mendatez gogorak igotzen dira itzuli horretan.

Hobeto niretzat, ondo moldatzen naiz igotzen.

## Kontinental-profesional mailako txirrindulari bat ekonomikoki ondo bizi al da?

Bakoitzak jartzen dio neurria bere beharrei. Sortzen diren gastuak ordaintzeko nahikoa soldata jasotzen dudala esango dut.

## Urnietako lagunak zu nonbaitera ikustera joan nahiko balute, zer gomendatuko zenieke?

Ba Portugal, joaten banaiz, edo Burgos. Gertu dago. Lizarrako Sari Nagusia bezala. Pirinioak ere, Route du Sud itzulian. Bales edo Tourmalet hiru ordura daude.

**ZIURGABETASUNA**  
"Esperantzari eutsi nion uneoro. Ordezkarri baten bidez beti egon da aukeraren bat txirrindulari izaten jarraitzeko"

**2015EKO EMAITZAK**  
"6 itzulietan hiru onenen artean sailkatu nintzen, eta podiumetik kanpo geratu nintzen proban 5. postuan"

**2016KO EGUTEGIA**  
"Apirila, maiatza, ekainean ibili nahi nuke ondo. Zornotza eta Lizarra, Asturias, Gaztela-Leon, Route du Sud Frantzian, eta abuztuan Burgos edo Portugal"

**ERRONKA**  
"Itzulietako nagusian 10 onenen artean egiten ez badut, akaso ez dut etorkizun askorik merezi txirrindularitzan, ezta?"

**ERREGULARTASUNA**  
"Taldea askok nahiago dute sailkapen nagusietan postu on asko egiten dituen txirrindulari bat, garaipenak lortzen dituen baino"

**AZKEN TRENA**  
"Atzerapausorik ez dago dagoeneko. Bidea egiten badut, ederki, eta hala ez bada, ba lanean hasi behar zerbaitean"

**HOBETU BEHARRA**  
"Jarraikotasun handiagoa lanean. Entrenatu gogor, eta etxean zaindu. Horretaz gain, eskarmentua. Urteen joan-etorriaren lasterketetara ondo nola iristen ikasten duzue"

**TESTAK**  
"Xoxokan gora egiten ditut, geltokitik. Zortzi minututik behera, 4,3 kilometro edo. 26 edo 27 kilometro orduko, batez bestekoa"

**URNIETAREN BABESA**  
"Lizarran edo Zornotzan, Burgosen..., Pirinioetan ere txarra ez. Tourmalet eta Bales mendateak gertu daude"



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Manol Larramendi  
Kultur Bizkaina



INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

**ERROITZ**  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
**Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba  
Lizeaga, Izarne Olano  
eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trubuelo eta  
Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe  
Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi  
(Andoain), Garazi  
Usandizaga (Urnieta).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

URTARRILAREN 28TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- "Palmeras en la nieve".  
Larunbata, 23. 19:30, 22:00.  
Igandea, 24. 19:30.  
Astlehena, 25. 19:30, 22:00.

## Antzerkia

**Andoain, Bastero**

- "Happy end", Vaiven taldearen komedia. Gaztelaniaz.  
21:30. 12 euro.  
Urtarrilak 29, ostirala.

## Musika

**Andoain**

- Iheskide eta Eratu musika taldeak zuzenean.  
22:30. Gaztetxea.  
Urtarrilak 30, larunbata.

## Ikastaroak

**Andoain**

- Enkoadernazio eta paper marmoleatuaren oinarritzko tailerra, Art Ekintza sorkuntza tailerraren eskutik. Ikastaroa otsailaren zehar. Informazioa: 646 637 330. auartekintza@gmail.com  
Epea: urtarrilak 29.
- Euskara ikasi AEK ren eskutik. Informazioa: Extremadura kalea 5, behea. 943 591 704. andoain@aek.eus  
Epea: urtarrilak 29.

## Deialdia

**Andoain**

- "Martxoak 8, 8 emakume pausoz pauso" ekimeneko izendapenak emateko aukera zabalik Basteron, Atarian, Osasun etxean, kiroldegian edota andoain.eus webgunean.  
Epea: otsailak 2, asteartea.

## Lehiaketak

**Andoain, Bastero**

- Martxoak 8 kartel lehiaketa. Info: andoain.eus.  
Sari bakarra, 350 eurokoa.  
Epea: Otsailak 3.
- Inauterietako argazki lehiaketa. Info: andoain.eus.  
Epea: Otsailak 15.

## Santa eskea

**Andoain**

- Bigarren entsegua: 20:00. Ambrosia Olabide. Otsailak 2, asteartea.  
Kantu erronda: 18:00. Dr Huitzi kalea. Otsailak 4, osteguna.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: Zatarain.  
Urnieta: Gomez (Hernani).  
Urtarrilak 30 eta 31.
- Gaez: Urrutia (Hernani).  
Urtarrilak 23 eta 24.

## Jardunaldiak

**Urnieta, Sarobe**

- Bake eta bizikidetzari buruzko III. jardunaldiak. Hitzaldi bikoitza. Lehena, **Aintzane Ezenarro**: "Memoria landu: zergatik eta zertarako". Jarraian, **Sabino Ormazabal** Argituz: "Memoria partekatatu bateruntz".  
19:00. Sarobe. Doan.  
Urtarrilak 28, osteguna.

## Kaldereroak

**Andoain**

- Kalejira herrian barrena.  
17:00. Ontza elkarte.  
Urtarrilak 30, larunbata.

## Inauteriak

**Andoain, Urigain**

- Desfilea antolatzeke bilera.  
19:00. Urigain.  
Otsailak 1, astlehena.

## Batzarrak

**Andoain**

- Udalaren osoko ohiko batzaraldia. 19:00.  
Urtarrilak 28, osteguna.

## Erakusketa

**Andoain, Bastero**

- Jose Angel Yanci Urtasunen marrazkien erakusketa.  
Otsailaren 27ra arte.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



93, 11, 3, 31, 22, 19... urteak betetzen. **Tio** 93 urte egin ditu urtarrilaren 17an. Maitezaitugu pakepakean zeruan dagoen **Tiari** bezain beste!  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Imanolek** 11 urte egingo ditu urtarrilaren 31ean. Irunek 3 urte egingo ditu urtarrilaren 30ean. Ikusi makusi zein ikusi? Pozik bizi den sorgintxo da!  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Aitorrek** 31 urte egingo ditu datorren otsailaren 1ean. Leire, Irune eta Anderrek esan digu maitagarria zarela... halaxe jarraitu!  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Maitane Eizagirre** 9 urte beteko ditu urtarrilaren 27an eta **Nahia Idigoras** lehengusuak 14 urte otsailaren 12an. Aitonamona eta etxe-koak.  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Eneko Idigoras** sek otsailaren 19an 17 urte beteko ditu. Jator-jator segi. Muxuak aitona eta etxe-koen partetik.  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Ikerrek** 19 urte otsailaren 9an. Unibertsitateko ikaslea eta euskaldunako entrenatzailea da... gainera guapoooo!  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Maialenek** 22 urte egingo ditu otsailaren 7an. Bizitzari irribarre egiten dakizulako!  
**ANDOAIN**

Oso erraza da, eta dohainik: diseinua@aiurri.com

## Santa Agedako erronda prestatzeko azken entsegua

Kantari irteteko bigarren entsegua, Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian. Edozeinek parte har dezake errondan, tradizioak agintzen duen bezala janztea eta kantatzea dira bi baldintza bakarrak. Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute

Berrozpeko Ontza elkartearen izena aurretik ematen dutenek. Izena emateko azken eguna otsailaren 2an izango da, iluntzean egingo den entseguan. Egunean bertan ezin da izenik eman afaritarra joateko.

20:00. Ambrosia Olabide.  
Otsailak 2, asteartea.

## "Martxoak 8 emakume"

Emakumearen Nazioarteko egunaren harita, laster Andoainen "Martxoak 8 emakume" kalejiraren bosgarren edizioa egingo dute. Jakina den bezala, kalejira horretan alor ezberdinetako 8 emakume omentzen dituzte. Proposamenak egiteko aukera ire-

kia da, edonork parte har dezake eta Udalak hain zuzen ere parte hartzea sustatu nahi du. Otsailaren 2ra arteko epea zabalik dago. Proposamenak aurkez daitezke Basteron, Atarian, Allurralden, Anbulatorioan edota andoain.eus webgunean.

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN

*Sagardo kata-maridajea Andoainen*

19:30. Santa Krutz Peña elkarte.  
Otsailak 11, osteguna.

Guillermo Castaños, enologoa  
Unai Agirre, Sagardogileen elkarte

**Aiurriko harpidetza eskaintza berezia.**  
Doako saioa.

Sagardo ezberdinak dastatzen ikasteko aukera paregabea.

Kopuru mugatua:  
25 lagun.

Izen-ematea, ezinbestekoa:  
943 300 732 / idazkaritza@aiurri.com